

LORETOPETIK ▶ ARANTZA KALZADA (KAZETARIA)

Jaietan, ez narratsak izan!



Zikinkeriarik gabeko txupinazoa eskatu dute Bilbon. Lehen aldiz eta aspaldiko partez, Bilboko konpartsek eta Udalak bat egin dute. Ados daude. Aurten ez dute ez irinik, ez arrautzik, ezta txanpainik ere botako... Festa hasten denean, denak txukun-txukun izango dira nonbait. Arrautzak eta irina botatz pasatu ditugu urteak, inguruko festetan, eta, egia esan, hasieran nazka ematen bazuen ere, behin jai giroan murgilduta eta bustita, zikin ez bazeunden ez zirudien jaietan zinenik.

Bilbon deialdia egiteak atentziora eman dit. Bilbo, berez, hiri ederrago bilakatzeko ari da. Dotoretu egin dute azken urte hauetan. Txukundu egin dituzte pasealeku, plaza eta kaleak. Honen eragina izango al da? Horregatik eskatuko ote zuten Bilboko Udalak eta konpartsek beraiek, zerrikeria gutxiago behar zela? Edo arduratsiago, garbiago, txukunago izaten saiatzen ari ote gara? Alegia, gizarte modernoaren antzera,

gurean ere gizarte modernoa sortzen ari ote gara?

Honekin ez dut esan nahi festen hasierek zikinak izan behar dutenik! Ez! Baina Bilboren ospeagatik benetan harritu egin nau hori bertan eskatu izanak. Gasteizen eskatu izan balute, ez nintzateke harrituko. Gasteizek hiriburu aurreratuaren fama du. Beti da lehena guztian. Euskal hiriburuaren artean ospea du eta, batez ere, gizarte modernoaren erosotasunak ditu. Horregatik, aurtetik, errazago ikusten ditut era honetako aldarriak Gasteizen, Bilbon baino. Edo bestela, Donostia ere hortxe-hortxe. Baina Donostian ez da eskatu beharrik; berez nahiko hiri eskaparatea da, eta jendeak ez du udako festen hasieran edo zaindariaren jaietan gisa honetako ohitura narratsik.

Kontua da Bilbon hiriburuaren itxura hobetzearekin, bilbotarren kontzientzia ere txukuntzen ari direla. Ikusi beharko kasu egiten duten ala ez. Adibidez, Iruñean, sanferminak ez ditut txanpain merkerik bota gabe ulertzen. Festa usaina eta itxura ematen dute txanpainak, arrautzek eta irin piska batek, ezta? Hala ere, moderno eta txukun bihurtu beharko dugu. Bilbok hala esan du; ni-

retzat, Iruñearekin batera, kastako festa eta hiriburua.

Kontua da, antolatzaileek diotenez, gero eta haur eta zahar gutxiago gerturatzeko direla txupina ikustera. Nonbait, zikinkeriarik uxatu egiten ditu, eta ez dira Arriagara hurbildu ere egiten. Festa garbiak behar dira, beraz. Horretarako ere komun gehiago jarri omen dituzte bide bazterrean. Gaitzerdi!! Zenbat alditan gertatzen da jaietan pixaleak jota egon eta tabernetan kontsumitu arren, pixa egin ezina? Tabernariak nahita komunak giltzapean ixten dituzte, komunak ez izorratzeko. Azkenean jendeak kalean egiten du pixa. Zenbat aldiz bulztatu gaituzte narrats izatera? Hobe luke horretan indarrak jarriko balituzte.

Kontuak kontu, txukuntasunaren brigada martxan da Bilbon. Beste burutazio bitxi bat ere etorri zait: Mari Jaiari amatxo baten planta hartu diot aurtetik. Mari Jaiaren hitzak hauek izan daitezke: «Aurtetik ez dut zerrikeriarik nahi!». Denek txukun-txukun pasatu beharko dituzte festak. Aholkuak jarraituz gero, jaien hasieran txukun ibiliko dira, baina gerora, ez dakit nola bukatuko dituzten gainontzeko festa egunak.

Bestalde, neurri honen atzean udal

aurrekontuak merketzea dago: festen hasierako garbiketa ez da hain garestia izango Udalarentzat. Ba al dakizue zenbat milaka txanpain botila huts geratzen diren espaloietan? Eta zenbat arrautz eta irin masa, horma eta kristalen kontra zanpatuta? Eta zenbat garbigailuk lan egin behar duten zikindutako arropa garbitzen? Eta, hori egiteko, ohi baino zenbat ur gehiago erabiltzen dugun? Azkenean jasangarritasunaren aldeko neurria izan al daiteke? Ekologiaren aldeko neurriak? Edo aurreztearen aldekoak?

Aitortu behar dizuet pena piska bat ematen didala ez zikintzea eskatze horrek. Azken finean, zikintzeak, barrabasketarietan aritzeak, libreago sentiarazten gaitu. Bestela, pentsa, festa askotan apar bainuak egiten dira. Kale edo plaza batean aparra botatzen dute eta jendeak apar artean jolasten du. Goi-zuetan ikusi nuen hori duela gutxi. Gero mangerakin hantxe aritu ziren ordu luzez aparra kaletik kentzen. Ez da ez oso jasangarria hori, ezta? Honekin zera esan nahi dut: festetako hainbat egitarauk ere berrikuspena beharko luketela, alegia.

Txukuntasunaren ikurra hartu duten bilbotarrek, eredu jarraitzeko aukera jarri digute besteoi, ezta? Jai garbiago izango da. Animatuagoa, aldiz? Zuek ikusi!

BI HITZETAN ▶ KONTXI IRAREGI (KARRAKELA SALTZAILEA)

«Garai batean, 50 kilo karrakela ere saltzen nituen igande bakar batean»

Nagore Irastorza ▶ Kontxi Iraregi duela 53 urte hasi zen kaian karrakelak eta izkirak saltzen. Salmentak asko jaitsi diren arren, oraingoz gustura dagoela eta erretiratzeko asmorik ez duela adierazi digu.

Nolatan hasi zinen karrakelak eta izkirak saltzen?

Gure amak ere saltzen zituen. Egun batean, gizon batek harriapatutako karramarro batzuk ekarri zizkion; egostea eta portuan salgai jartzea erabaki zuen. Horrela hasi ziren gauzak eta ondoren, ni hasi nintzen lanean. Beste emakume bat eta biok hasi ginen karrakelak saltzen, eta horretan jarraitu dit orain arte.

Soilik uda sasoiari ibiltzen al zara lanean?

Ez. Udako denboraldia hasten denean, egunero etortzeko baimena dugu. Dena dela, Aste Santuan ere hemen izaten gara, eta baita maiatzean asteburuetan ere.

Salmenta aldetik, nolako aldaketa izan da urteotan?

Salmentek izugarriko beherkada izan dute. Orain Aste Nagusian gehiago saldu dugu,

baina ez dugu lehen bezala saltzen. Garai batean, 50 kilo karrakela ere saltzen nituen igande bakar batean. Aurten, gehien saldu dudana egunean, 22 kilo saldu ditut.

Non hartzen dituzue karrakelak eta izkirak?

Guk marisko dendetan erosten ditugu. Horretan ere aldatu egin dira gauzak. Garai batean Bretxan erosten nuen; etxera joan, egosi eta postuan salgai jartzen nuen. Izugarriko lana zen hura, baina noski, urte gutxiago nituen orduan ere.

Nortzuek erosten dute gehiago; donostiarrek ala kanpotarrek?

Turistek askoz ere gehiago. Eta Aste Nagusian, Gipuzkoako herrietako jendeak ere bai. Donostiarrengatik balitz, ez genuke ezertxo ere salduko. Hasi ginenean ere hori gertatzen zen; ez zegoen turismorik, eta oso gutxi saltzen genuen.

Turistek ba al dakite zer diren karrakelak?

Normalean, zer diren galde-tzen dute. Orduan nik karrakela erakusten diet eta dastatzeko eman. Izkiren kasuan, ha-

rritu egiten dira soilik burua kendu eta beste guztia jateko dela esaten diedanean. Frantziarrek izugarri atsegin dituzte izkirak.

78 urte dituzu. Ez al duzu erretiroa hartzeko asmorik?

Ni gustura nago, baina urteak aurrera doaz. Orain nire senarra izaten da goizetan; hainbeste urtetan zutik egotearekin, artrosiak jota bainago. Batzuetan, gutxi saldu badut, haserretu egiten naiz, eta dena uzteko gogoa ematen dit.

Erretiratzen zarenean, senideren batek jarraitzeko asmoa al du?

Ez dugu senideei baimenak uzteko aukera. Betidanik hemen izan garelako gaudu gu hemen; hori errespetatu egin dute. Guk etortzeari uzten diogunean, karrakela kale saltzaileen kontua bukatu egingo da.

Pena handia ematen du hori galitzeak, ezta?

Bai, garai batean hogeitau lagun baino gehiago ibiltzen ginen kaian saltzen, eta orain hiru besterik ez gaudu. Lehen kaia Donostiako Udalaren eskumena zen, baina orain Eusko Jaur-



RAUL PEREZ

laritzarena da, eta haien arauen arabera, gu joandakoa beste inork ezin izango lan honekin jarraitu.

Pasadizo bereziak ere izango dituzu, noski...

Galdera ugari egiten dizkirate turistek eta askok argazkiak egin nahi izaten dituzte nirekin; ehunka argazki egin dizkirate. Beti esaten diet kobratzen hasi beharko nukeela!